

Gurdia eta idiak

Deia, 1977-08-05.

Irakurri berri dutan elkar-hizketa batean, bi-puntu hoiek deigarri egin zaizkit:

1. Zergatik sustraitu dira euskaldunak lur hontan, Estatu hontako besteak berenetan sustraitu diren baino gartsuago?

Frankismoaren eraso dezisiboa izan da hontan: aginte politikoaren joera eta ekintzak lagundu die.

2. Eta "Estado de excepción" delako hori ere hemen gehien ezarria izan denez, honek ere euskaldunak besteengandik berezi egin du.

Galde-erantzun hoiek ez dira fede txarrez eginak izan.

Ba dakit.

Baina hauzi hau lehen ere modu hontara adierazia ikusi dutanez, nahi dut egokiera hontaz baliatu argigarri izan diteken zerbait esateko.

1. Gu, euskaldunok, ez gara lur hontan gehiago sustraitu Frankismoak gehiago zigortu gaituelako, aitzitik, Estatuko beste lurraldeetan baino zigortuago izan bagara, erresistentzi gehiago jarri diogulako izan da; eta erresistentzi hau jarri dugu, gainontzekoentzat diktatura politiko huts zenean, guretzat hiltzoriko jenozidio betea zelako. Beste herriak ez zuten hainbesteko ito-behar hau sentitzen; ezta katalanak ere; gure kultura eta herritasunaren bereizkuntza nabarmenak dira honen azalpen.

Ez gara, beraz, gu bereziak izandu; gure eraso larrien eraginak ziren, eta dira, berez bereizgarriak.

2. "Estado de excepción" hori ez zuen hemen Frankismoak beste gainontzekoen eskarmentu gisa behin eta berriz jarri; aitzitik, gure herriak sortzen zizkion larrialdi arrixkutsuaren erantzun bezala ezarri zizkion.

Ez gara, beraz, kasualitatez hontarako hautatuak izan; gerez diferenteak ginelako erantzun dugu modu ezberdinez, eta hala sortu dira istiluak, espetxeak, torturak eta hilak.

Ondorio nabarmena: idiak gurdiaren aurrean jarri behar direla, eta ez gurdia idien aurrean.

Egia da, bestalde, gure eraginez sortutakoak berez gure lurrian hobeto sustraitzen lagundu digula, baina hau *ondorio* gisa hartu behar da, eta ez *eragin* modura.

Arazo hau zaharra da gure herrian: guda karlistez ere erreflexio berdinak egin ditezke.

Guda hoiek hemen gogortu ziran, hemen iraun, eta hemen bukatu.

Zergatik ez Catalunya-n, Galizian edo Valenzian?

Beste errejioaz aitatzea, berriz, ez du merezi.

Beraz: diferentzi honen iturria *hemen, Euskal Herrian, Euzkadin*, dago.